

begoñazpi

astekaria



"Egunotan, jaiotza xume hau izan dogu 7kasolako sarreran. Jaietarako eta urte barrirako desiorik onenak adierazteko balio denuku".

GABON ZORIONTSUAK

eta

URTE BARRI ON!

Sentizea, bizitzea, gozatzea

OSPAKIZUNA



KANTALDIA



OLENTZERO



Bizitza, sentitza eta gozatza: Gurean doguz Gabonak

Begoñazpi Ikastolara Gabonak heltzeak, hainbat esanahi dauz: Jesusen jaiotzara hurbiltza, jakina, tradizioez gozatza, Olentzerok eta Mari Domingik adierazten deuskuen ilusioa bizitza, lagunakaz une bereziak partekatza, gozatza, abestea, dantzatza... Hona hemen zenbait adibide.



OSPAKIZUNA. Abendualdiko sendi arteko ospakizuna izan dogu Ikastolan. Kaperan otoitzaldia egin ostean, LHko 200 ikaslek baino gehiagok Jesusen Jaiotzaren ganeko antzezpen laburra egin euskuen. Bizi izan genduan iluntze bikainari amaiera emoteko, festa giroan, txokolatea hartu genduan. Gainera, Bidezko Merkataritzako produktuk erosteko aukera be izan genduan.

GEHIAGO IRAKURRI



KANTALDIA. Gabonetako kantaldiak gabonkanta ederrez, ilusioz, musikaz, tradizioz bete dau Ikastola. Lehen Hezkuntzako ikasleek, jakina, lan ederra egin dabe. Zorionak!



OLENTZERO ETA MARI DOMINGI. Plazerra da honeek ikustea. Zalantza barik, Olentzero eta Mari Domingi heltzean txikienek erakusten daben ilusioa kutsatu egiten da. Ikastola guztiak gogoz bizi izan dauz Gabonetako opor aurreko azken egun honeek, bereziki Ikastolako txikienek. Bideoan dozue ikusgai.



HAUR HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

